

Munduko Erlijioen Parlamentua

ETIKA MUNDIALAREN DEKLARAZIOA

SARRERA *

Mundua agonian dago. Hain sarkorra eta zapaltzailea da agonia, mugituak sentitzen garela azaltzen den formak seinalatzera gure zalantzaren sakontasuna agerian jartzeko.

Bakeak sorbalda ematen digu. Planeta ondatua izaten ari da. Hauzokideek elkarren arteko beldurrean bizi dira. Gizon-emakumeek beren artean urruntzen ari dira. Haurrak hiltzen dira.

Hori dena izugarria da.

Gure Lurreko ekosistemen erabilpen gaiztoa kondenatzen dugu.

Miseria kondenatzen dugu, bizitzaren ahalbideak itotzen baititu; gosea, gizakien gorputzak ahultzen baititu; desberdintasun ekonomikoak, hainbeste familiak ezerezarekin mehatsatzen dituelako.

* Testu hau *Sarrera* izenburuarekin, Deklaraziotik abiatuak landu zen, Tubingan prestatua eta Chicagon aurkeztua Munduko Erlijioen Legebiltzarraren "Kontseiluko" idazketa-komite batengatik. Testu honen izateko arrazoa, ondoren publikoetarako, Deklarazioaren laburpen bildu bat eskaintzea zen. Horrekin, gainera, bere irakurketa publikoa erraztea bilatzen zen. Zentzu honetan testua erabilia izan zen Batzarraren amaierako saio ospetsuan, 1994eko irailaren 4ean, Chicagoko Grant Parkean, non presente zeuden milaka batzuk bapateko txalo-zaparradak eskeini baitzituzten pasarte batzuen irakurketaren ondoren.

Nazioetako desordena soziala kondenatzen dugu; justiziaren mespretxua, hiritarrak bazterketara bultzatzen dituen; anarkia, gure komunitateetan posizioak irabazten duena; eta haurren heriotza absurdua bortxaren bidez. Bereziki kondenatzen dugu agresioa eta gorrotoa erlijioaren izenean.

Agonia honek amaitu behar du.

Amaitu behar du, etika baten oinarria existitzen baita. Halako etikak, ordena indibidual eta global hobe baten ahalbidea eskaintzen du gizakiak desesperaziotik eta gizarteak kausetik urruntzeko.

Munduko erlijioen arauak eta praktikak jarraitzen ditugun emakume eta gizonak gara.

Erljioetako irakaspenek oinarritzko balioen ondare komun bat dutela baieztatu dugu, etika mundial baten oinarria osatzen dutena.

Egia hau iadanik ezaguna dela baieztatu dugu, baina oraindik ez da bihotzez eta ekintzez behar den bezala bizitzen.

Bizitzako eremu guztietan arau deseginezina eta ezinbestekoa dagoela baieztatu dugu, baliagarria familientzako, komunitateentzako, arrazentzako, nazio eta erlijioentzako. Giza-jokabidearen antzinako irizpideak daude, munduko erlijioetan aurki daitezkeenak eta ordena mundial iraunkor baterako baldintza direnak.

Aitortzen dugu:

Denak elkardependienteak gara. Gutako bakoitza multzoaren osasunetik dependitzen du. Horregatik, izaki bizidunen, gizakien, abereen, landareen kolektibotasuna errespetatzen dugu, eta kezkatuak sentitzen gara, Lurraren, airearen, uraren, lurzolareen zainketa-erengatik.

Norbanakoak bezala egiten dugun guztiaren ardura gurea. Gure erabaki, ekintza eta utzikeri guztiek ondorioak dituztela.

Besteak tratatu behar ditugula haiek gu tratatuak izatea nahi dugun bezala. Bizitza eta giza-duintasuna, norbanakotasuna eta diferentzia errespetatzera konprometitzen gara, halako eran non pertsona bakoitzak, salbuespenik gabe, gizatasunezko tratua jasoko duen. Pazientzian eta onarpenean ariketatu behar dugu. Barkatzeko gai izan behar dugu, iraganetik ikasiz, baina inoiz ez gorrotoaren oroimenari amore emanez. Besteie gure bihotzak erekitzerakoan, gure liskar txatxuak lurperatu behar ditugu komunitate mundialaren onerako, halako moduan non praktikara eraman ditzagun elkartasunaren kultura eta elkarren arteko lokailuak.

Gizadia gure familia kontsideratzen dugu. Erekiak eta bihotz-zabalak izaten ahalegindu behar dugu. Ez dugu bizi behar guretzako bakarrik, baizik eta alderantziz, besteak zerbitzatu behar ditugu eta ez inoiz ahaztu, haurrak, zaharrak, behartsuak, gutxiak, herbesteratuak eta bakarrik aurkitzen direnak. Inor ez da bigarren mailako hiritar bezala kontsideratua izango. Inor ez da inolako zapalketa modura menperatua izango. Gizona eta emakumearen artean berdintasunean oinarrituriko lagunkidetasuna existitu behar da. Ezin gaitezke erori inolako sexu-jokabide inmoralean. Atzean utzi behar ditugu nagusitasunezko edo gehiegikeriazko edozein forma.

Gure buruak konprometituak aitortzen ditugu: biolentzia-ezaren, errespetuaren, justiziaren eta bakearen kulturarekin. Inoiz ez dugu beste gizakirik zapalduko, ez diogu minik egingo, ez dugu torturatuko, ez diogu inondik inora heriotza gauzatuko, eta biolentziari uko egingo diogu, diferentziak konpontzeko bitarteko bezala.

Ahaleginduko gara ordena sozial eta ekonomiko zuzen bat lortzeko, non bakoitzak aukera berdinak jasoko dituen bere giza-kualitateak osoki garatzeko. Egiari leialtasunarekin mintzatu behar dugu eta horren arabera jokatu, besteak ulertuz, eta aurreiritzi eta gorrotoengatik eramanak izatea ekidinez. Ez dugu lapurtu behar. Gainditu behar dugu edozein tentaldi boterea eta nagusigoa irrikaz bilatzeko, prestigioa, dirua eta kontsumoa, mundu zuzen eta bakezale bat osatzeko asmoarekin.

Lurrak ezin du hobera aldatu, aurretik ez bada norbanakoen mentalitatea aldatzen. Gure oharmen-gaitasuna zabaltzera konprometitzen gara gure espiritua disziplinara menperatuz, meditazioaren, otoitzaren edo gogoeta positiboaren bitartez. Arriskurik gabe eta sakrifiziorako disposiziorik gabe, ezin daiteke gure egoeraren aldaketa fundamentalarik gertatu. Horregatik, konprometitzen gara etika mundial honekin, elkarren arteko ulermenarekin eta adostasun soziala, bakearen egituraketa eta izadiaren errespetua daramaten bizikera haiekin.

Gonbidatzen ditugu guztiak, sinisdunak izan ala ez, gauza bera egitera !

ETIKA MUNDIAL BATEN PRINTZIPIOAK

Gure munduak erabateko sustraiko krisia zeharkatzen du; ekonomia mundialaren krisia, ekologia mundialarena, politika mundialarena. Edonon aienatzen da ikuspegi global baten ausentziaz: konpondu gabeko arazoek pilaketa beldurgarria, paralisia politiko bat, zuzendari politikoen erdikoikeria, azkartasunean zein etorkizun-ikuspegietan hain hutsak, eta orokorrean, guztien ongian interesarik gabe. Erronka berrientzako iraganeko erantzun gehiegi.

Ehunka miloi pertsonen, egunetik egunera gehiago, langabezia, familien ondapena, pobrezia eta gosea jasaten dute. Bake iraunkor baten esperantza progresiboki desagiten doa. Sexuen eta belaunaldien arteko tentsioek neurri beldurgarriak lortu dituzte. Haurrak hiltzen dira, hiltzen dute eta hilak dira. Gero eta Estatu gehiago ikusten da ustelkeriazko (politiko eta ekonomiko) kasuengatik astinduak. Gure hirietako bakezko elkarbizitza gero eta zailago egiten da gatazka sozial, arrazazko eta etnikoengatik, drogaren gehiegikeriagatik, antolatutako krimena, baita anarkiaren ere. Haurkideak ere sarritan larrimenez bizi dira. Gure planeta kupidarik gabe ustiatzen izaten jarraitzen du. Ekosistemen desorekak mehatzatzen gaitu.

Kezka bereziarekin ohartzen gara nola, munduko leku-ez-gutxitan, erlijioetako zuzendari eta jarraitzaileek behin eta berriz eragiten duten agresiora, fanatismora,

gorrotora eta xenofobiara, eta gainera, bortxazko eta odolezko enfrentamenduak inspiratzen eta justifikatzen dituzte. Anitzetan erlijioa, gehiegikeriaz, botere politikoa lortzeko tresna huts batean bihurtzen da eta gerra pizteko ere erabiltzen da. Nazka berezi batez betetzen gaituen zerbait bihurtua.

Agerpen guzti horiek kondenatzen ditugu eta hau ezin daitekeela horrela izan aldarrikatzen dugu, ez duela horrela izan behar. Eta ez du horrela izan behar iadanik **etika** bat existitzen delako gai dena hain kaltegarriak diren manifestazio global horiei aurregiteko eta berbideratzeko. Etika honek, noski, ez du eskaintzen soluzio zuzenak munduko arazo guztientzat, hain meurrigabeak, baina bai osatzen duela oinarri moral bat ordena indibidual eta global hobe baterako; **ikuspegi** bat eskaintzen du desesperantzatik eta indarraren nagusigotik askatuz, emakumeak eta gizonak errekuperatzeko gai izango dena, eta baita ere gai izango dena gizarteak kaosatik libratzeko.

Munduko erlijio ezberdinen arauak eta praktikak aitortzen ditugun gizon eta emakumeak gara. Etika mundial baten oinarria osa dezakeen erlijio horien arteko adostasun bat dagoenaren aitortza eman nahi dugu. Gutxieneko oinarrizko adostasun batez tratatzen da, **balio** lokagarriei, **irizpide** aldaezinei eta **jarrera moral oinarritzko**ei dagokiena

I. ETIKA MUNDIAL BAT GABE EZINEZKOA DA ORDENA MUNDIAL BERRI BAT

Gu, Planetako erlijio eta lurralde ezberdinetako gizon eta emakumeok, zuzentzen gatzazkie gizaki guztiei, erlijioso eta ez erlijioso, ondorengo gauzetaz konbentzituak gaudela agertzeko helburuarekin:

- **Guztiok garela arduradun ordena mundial hobeago baten bilaketan;**
- Giza eskubideekin, askatasunarekin, justizia, bakea eta Lurraren kontserbazioarekin ezinbestekoa dela konpromiso bat;
- Gure tradizio erlijioso eta kulturalak ez daitezela oztopo bat izan elkarrekin aktiboki lanegiteko, deshumanizazio forma guztien aurka eta humanizatzeko haundiago baten alde;
- Deklarazio honetan azaldutako printzipioak partekatuak izan daitezkeela, ustesendo etikoekin animaturik dagoen edozein gizakiarengatik, erlijiosoki oinarriturik egon ala ez;
- Gu, espiritualki eta erlijiosoki orientaturiko gizakiak bezala, azken errealitate batean oinarritzen dugula gure bizitza eta beretik lortzen jarrera konfiatu bat, otoitza edo meditazioaren bidez, hitzaren edo isiltasunaren bidez, bere indar espiritual eta bere esperantza, obligazio berezi-berezian sentitzen gara Gizadi guztiaren ongia bideratzeko eta Lurra planeta zaintzeko. Ez gara besteak baino hobeak kontsideratzen, baina fedea daukagu gure erlijioetako jakinduria sekularra gai izango dela etorkizunerako horizonte berriak erekitzeko.

Bi gerra mundialen ondoren eta gerra hotza amaiturik, faszismoaren eta nazismoaren gainberaren ondoren eta komunismoa eta kolonialismoa gainditurik, Gizadia bere historiako fase berri batean sartu da. Gizadiak baditu aski baliabide ekonomiko, Kultural eta espiritual ordena mundial hobeago bat ezartzeko. Hala ere, tentsio etnikoek, nazionalistek, sozialek, ekonomikoek eta erlijiosoek, zaharrek eta berriek, arriskuan jartzen dute mundu hobe baten bakezko eraiketa. Gure garaiak, egiazki, aurrekaririk gabeko arurrerapen zientifiko eta tekniko bat esperimentatu du.

Baina, baita ere ukazina da, munduaren luze-zabaleran, pobrezia, gosea, haur-hilkortasuna, langabezia, pobretzea eta izadiaren ondapena ez dela gutxitu, alderantziz baizik, haunditzen jarraitu dutela. Herri asko mehatxupean aurkitzen dira, erruina ekonomikoarengatik, desegintza sozialarengatik, marginazio politikoarengatik, katastrofe ekologikoarengatik eta haustura nazionalarengatik.

Halako egoera mundial dramatikoan, Gizadiari ez zaizkio aski izakera politikoa duten programak eta aktuazioak. Guztiaren gainetik, herri ezberdinen, talde etnikoen eta etikoen eta erlijioen **bakezko elkarbizitzaren ikuspegi** bat behar du, gure Lurra planetarekiko guztien ardurarekin animatuak. Horrelako ikuspegi bat, itxaropenetan, helburuetan, idealetan, irizpideetan oinarritzen da; mundu zabalean sakabanaturiko gizaki anitzek galtzen joan diren dimentsioak horiek guztiak. Eta hala ere, konbentziturik gaude, hain zuzen erlijioek, nahiz eta gehiegikeriak eginak izan eta akats historiko errepikatuak, ardurak har ditzaketela halako esperantzak, helburuak, idealak eta irizpideak iraun arazteko, sustraitzeko eta gure bizitzetako parte izatera igarotzeko. Hau bereziki baliagarria da Estatu modernoek kasuan. Horiek bermatzen dute kontzientzia eta erlijio askatasuna, baina horrekin ez dituzte balioak, ustesendoak eta gizaki guztientzako arau lokagarriak ordezkatzeko, sorrera soziala, sexua, azal-kolorea, hizkuntza edo erlijio faktoreetatik independente.

Gure planeta Lurra betetzen duen giza-familiaren oinarrizko batasunaz konbentziturik gaude. Horregatik, oroimenera ekarri nahi dugu Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala Nazio Batuek eginia 1948an. Bertan ospetsuki aldarrikatzen zena **zuzenbidearen** eremuan, hori bera nahi dugu guk ere azpimarratu eta sakondu hemen etikaren ikuspegitik: giza-pertsonari errespetu osoa, askatasunaren izakera besteraezina, gizaki guztien oinarrizko berdintasuna eta denak guztiekin elkardependentziara.

Esperientzia pertsonaletatik abiatu eta gure planetaren historia aintzakotzat harturik, ikasi dugu:

- lege, arautegi eta konbentzio hutsegin ezin dela sortu, eta gutxiago inposatu, ordena mundial hobeago bat;
- Bakearen eta justiziaren lorpena eta Lurraren kontserbazioa gizakien dispozizio eta jarreratik dependitzen dutela eskubidea baliagarria egin arazteko;
- Eskubidearekin eta askatasunarekin konpromisoak arduren eta obligazioen aurreko kontzientzia hartze bat suposatzen dutela, eta horregatik, beharrezkoa dela gizakiak bere espirituan eta bihotzean kuestionatuak izatea;
- Zuzenbideak etikotasunik gabe ez duela luzarora inolako konsistentziarik (egonkortasunik) eta, ondorioz, **etika mundial bat gabe, ezinezkoa dela ordena mundial berri bat.**

Etika mundialetaz ez dugu ideologia berri bat ulertzen, **ezta ere erlijio unibertsal bateratzaile bat** existitzen diren erlijioetatik haratago, ezta, gutxiago oraindik, erlijio baten nagusigoa besteekiko. Etika mundialaz: **oinarrizko adostasun bat ulertzen dugu balio lokagarri serie bati buruz, irizpide egonkorrei buruz eta oinarrizko jarrera pertsonalei buruz.** Priontzipiozko antzeko adostasun etikorik gabe, komunitate orok ikusten du bere burua, beranduago edo lasterrago, kaosa edo diktaturagatik mehatsaturik eta norbanakoak larriminagatik.

II. OINARRIZKO BALDINTZA: GIZAKI OROK TRATU GIZATIAR BAT JASO BEHAR DU

Gizaki guztiok salbuespenarik gabe izaki akaskorrek, inperfektuak, mugekin eta hutsuneekin gara. Gainera, gaitzaren errealitatearen esperientzia daukagu. Horregatik berberagatik, eta muga guzti horiek izan arren, behartuak sentitzen gara, Gizadiaren onerako behartuak sentitzen gara Gizadia guztiarentzat guztien etika baten oinarrizko osagaiak iruditzen zaizkigunak seinatzera (azpimarratzera), bai norbanakoentzat zein komunitate eta antolakuntzentzat, Estatuentzat zein erlijioentzat. Konbentziturik gaude gure tradizio etikoek eta erlijiosoek, sekulartuak iadanik neurri haundi batean, oinarrizko **osagai etiko** nahikoak badituztela **borondate oneko gizaki guztiengatik**, erlijiosoak izan ala ez, oso ongi ulertuak eta bizituak izan daitezkeenak.

Honi dagokienez, konsziente gara gure tradizio etiko eta erlijioso diferenteez irizpide bat oinarritzen dutela, sarritan era oso ezberdinean, gizakiarentzat ongaria edo kaltegarria, zuzena ala zuzengabea, ona edo txarra denari buruz. Ez ditugu ignoratu nahi ezta erlijio ezberdinen arteko diferentzia sakonak ezabatzea pretenditzen. Baina antzegabetasun horiek ez gaituzte galerazi behar **oraindik iadanik guztiona, komuna** zaiguna publikoki aldarrikatzea, zeinarekin guztiok berdinki obligatuak sentitzen garen gure berezko konpromiso etiko edo erlijiosoarekin egokitzen.

Baita ere konsziente gara erlijioek bere kabuz bakarrik ezin dezaketela gure planetan jasaten dituen arazo ekologikoak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak konpondu. Baina bai lor dezaketela argi guztien arabera lortezina dena plangintza ekonomiko, programa politiko eta erregulazio juridiko hutsekin: gizakiaren barnealdaketa, **giza-bihotzaren transformazioa**, bizitzako jarrera berri batera bihurteta-bihozberritze baten bidez, bide okierretik urrunduz. Zalantzarik gabe, Gizadiak transformazio sozialak eta ekologikoak behar ditu, baina ez gutxiago berrikuntza espiritual bat. Zentzu erlijioso batez animaturiko pertsonak garen neurrian, berrikuntza

lan honetan inplikatzeari nahi dugu, bete-betean kontzientek izanik erlijioen indar espiritualak, hain zuzen gizakien bizitzari oinarritzeko konfiantza bat eman diezaioketela, bizi-horizonte bat, irizpide egonkor batzuk eta aberri espiritual bat. Erlijioek lan hori erasinez burutu dezakete, beren artean eurek probokatzen dituzten gatazkak ezabatzen badituzte, elkarren arteko harrokeria eta mesfidantza alde batera uzten badute, aurreiritziak eta aurreiruditipoak abandonatzen badituzte eta beste sinestunen tradizio, santutegi, festa eta errituei buruz errespetua aitortzen badute.

Denok dakigu munduko bazter guztietan **tratu inhumanoa** jasotzen jarraitzen duten gizakiak daudela. Beren bizi-baldintzak kentzen zaizkie, askatasuna menperatu, beren giza eskubideak zapaldu, beren giza-duintasuna mespretxatu. Baina indarra eta eskubidea ez dira baliokideak! Hainbeste gizatasunezaren aurreran, gure sendouste etikoek eta erlijioek mugitzen gaituzte oihera: **gizaki orok tratu gizatiarra jaso behar duela!**

Honek esan nahi du gizaki orok, sexu, adin, arraza, klase, azal-kolore, gaitasun intelektual edo fisiko, hizkuntza, erlijio, ideia politiko, nazionalitate edo izakera sozialaren bereizkuntzarik gabe, **duintasun bortxaezina eta besteraezina** duela. Arrazoi honengatik, guztiak, norbanakoak eta Estatuak, behartuak daude duintasun hori errespetatzera eta bere babesa eraginkorki bermatzera. Ekonomiak, politikak eta komunikabideek, ikerketa zentroek eta entepesek gizakia beti **zuzenbide-sujetua** kontsideratu behar dute.; pertsona helburu izan behar du beti, inoiz ez bitarteko-hutsa, inoiz ez komertzializazio-gai edo industrializazio-gai. Ezer eta inor ez dago “ongia eta gaizkiatik haratago”: ez norbanakorik, ez estratu sozialik, ez interes talderik eragile haundia izanik ere, ez botere-kartelik, ez polizi-aparatorik, ez armadarik, ez estaturik. Alderantziz: gizaki oro, arrazoiez eta kontzientziaz jantzirik, beharturik dago gizatasunez jokatzera eta ez gizatasunezaz, **ongia egitera eta gaizkia ekiditera!**

Gure Deklarazioak honen esnahi konkretua azaltzea pretenditzen du. Ordena mundial berri baten ikuspegiarekin oroimenera nolabaiteko arau etiko egonkorrak, absolutuak ekartzea pretenditzen dugu. Arau batzuk, kateak eta zepuak izatetik urrun, gizakiei bere bidean laguntzeko eta sostengatzeko zerbitzatuko dietenak bizitzako-

norabide batekin, bizi-balio batzuekin, bizi-jarrera bat eta bizi-zentzu batekin eta dagokien praktikarekin topatzeko.

Egiazki era gizatiar batez jokatzeko baliagarria da halako **urrezko araua**, milaka urtetan zehar tradizio etiko eta erlijioso anitzetan, sinesgarritasunean hazten joan dena: **Ez egin besteei zuretzat nahi ez duzuna**. Plantementu positibo bat duen printzipioa: **Egin besteei zurekin egitea nahi duzuna**. Hau izan beharko luke baldintzagabeko araua, absolutua, bizitzako esfera guztietan, familian eta komunitateetan, arrazentzako, nazioentzako eta erlijioentzako.

Era guztietako egoismoak, izan daitezen norbanakoak edo kolektiboak, ager daitezen klase ideologia bezala, arrazismo bezala, nazionalismo edo sexismo bezala, arbuiagarriak dira. Guk kondenatzen ditugu, gizakiari egiazki gizatiarra izatea galeraetzen diotelako. Autodeterminazioa eta autoerrealizazioa, bakarrik dira legítimoak osoki norbanakoaren arduratik berekiko eta munduarekiko bananduak agertzen ez direnean, lagun hurkoarentzat eta Lurra planetarentzat ardurarekin lotzen direnean.

Urrezko arau honek aintzat hartu behar ditugun eta oso zehatzak diren arau-serie bat bereganatzen ditu. Hortik lau printzipio antzinakoak isurtzen dira, munduko erlijio gehienetan aurkitzen direnak.

III. LAU ORIENTABIDE ALDAEZINAK

1. Bortxa ezaren kultura baten aldeko konpromisoa eta bizitza orori errespetua

Lurreko erlijio eta lurralde guztietako ezin konta ahala pertsonak egoismotik ihes egiten saiatzen dira eta inguratzen duten bizikide eta munduaren aldeko konpromiso batengatik ezaugarritzen den bizimodu bat eramaten dute. Hala eta guztiz ere, gaurko munduan gorrotoa mugagabea da, bekaizkeria, leihakortasuna eta biolentzia bezala, ez bakarrik norbanakoen artean, baizik eta talde sozial eta etnikoen artean ere, klaseak eta arrazen artean, nazio eta erlijioen artean. Indarraren erabilpena, drogen trafikoa eta krimena antolatua, sarritan ahalbide tekniko modernoekin ekipaturik, dimentsio planetarioetara iristen dira. Alderdi askotan, “terrorearen” ariketaren bitartez, “goitik” gobernatzen da oraindik; diktatoreek beren herriak bortxatzen dituzte, biolentzia instituzionala hedatzen da. Gainera, zenbait herritan non askatasun indibidualak bermatzen dituzten legeak existitzen diren, presoak torturatzen dira, mutilazioak praktikatzten dira, bahituak erahiltzen dira.

A) Baina Gizadiko tradizio erlijioso eta etiko haundi eta antzinakoei esker agindu bat iritsi zaigu: **Ez duzu hilko!** Edo, baikorki esanta, **Bizitza errespetatu ezazu!** Atera ditzagun, bada, ondorioak antzinako lege honetatik. Gizaki orok dauka eskubidea bizitzarako, gorputz osotasunera eta bere nortasunaren garapen librerako, beti ere, eskubide honen praktikak besteenak zauritzen ez dituen bitartean. Inork ez dauka eskubiderik bestea fisikoki edo psikologikoki gaizki tratatzeko, bestea zauritzeko edo, noski, bestea hiltzeko. Eta inongo herririk, inongo Estaturik, inongo arrazarik, inongo erlijiorik ez dauka diskriminatzeko eskubiderik, “depuratzeko”, herbesteratzeko, ezta ere, noski, beste egoerako edo beste kredoko bat esterminatzeko.

B) Egiazki, gizakiak dauden han, beti izango dira gatazkak. Baina, printzipio bezala, halako gatazkak konpondu beharko lirateke biolentziara errekurritu gabe, ordenamentu juridiko baten markoan baizik. Honek balio du bai norbanakoentzat zein Estatuentzat. Zuzendari politikoei beste inori baino gehiago exigitzen zaie lotu daitezela orden juridikoari eta soluzio bakezkoak lortzen saia daitezela, ahal den neurrian ez

biolentoak, bakezko nazioarteko ordenamendu batean, zeinak aldi berean defendatua eta zaindua izan behar duen bortxazaleen aurrean. Armamentuen lasterka bide oker bat da; desarmaea, gaurko orainaldiaren inperatibo bat. Inor ez dadila engaina! Ezin liteke gizadiaren bizi-iraupenarik bake mundialarik gabe!

C) Horregatik, gazteek ikasi beharko lukete iadanik familian eta eskolan indarra ezin dela inoiz besteekin konfrontazio bitarteko bat izan. Horrela bakarrik ezar daiteke **ez biolentziaren kultura bat**.

D) Giza pertsona neurrigabe baliouduna da eta babespena absolutoki dagokiona. Baina baita ere abereen eta landareen bizitzak, gurekin batera planeta hau habitatzen dutenena, arreta, kontserbazioa eta zainketa merezi du. Oinarrizko osagai naturalen ustiaketa, biosferaren ondapen kupidagabekoa eta kosmosaren militarizazioa krimen bat dira. Gizakiak bezala, bista etorkizuneko belaunaldietan jarririk, ardura berezi bat daukagu Lurra planetarekin eta kosmosarekin, airea, ura eta lur-zoruarekin. Mundu honetan **denak gaude elkarrekiko inplikatuak** eta batzuek besteekiko dependitzen dugu. Gutako bakoitzak kolektiboatasunaren ongiatik dependitzen du. Horregatik, ez dauka zentzurik giza-soberania aldarrikatzeak izadiari eta kosmosari buruz, alderantziz baizik, saiatu beharko ginateke gizatasunezko elkartasuna sustatzen izadiarekin eta kosmosarekin.

E) Egiazki gizatiarra izatea, gure tradizio erlijioso eta etiko haundien espirituaren arabera, afablea eta kooperazioara erekia izatea esanahi du, bizitza pribatuan eta publikoan, deskontsideratua eta basatia inoiz ez izatea. Herri bakoitzak, arraza bakoitzak eta erlijio bakoitzak besteei eskeini behar die tolerantzia eta errespetua, eta gainera, estimua eta kontsiderazioa. Gutxiengoak, izan daitezten arraza tipokoak, etnikoak edo erlijiosoak, gure babespena eta estimulua behar dituzte.

2. Elkartasunaren Kultura baten eta ordena ekonomiko zuzen baten aldeko konpromisoa

Lurralde eta erlijio askotako gizakiak elkarren arteko elkartasuna praktikatzen eta bere eginbehar profesionalean laneko eta leialtasuneko bizitza bat eramaten saiatzen

dira. Hala eta guztiz ere, gaurko munduan gosea, pobrezia eta premiak mugagabeak dira. Hau horrela izatearen errua ez dago norbanakoan bakarrik. Baita ere errudunak dira, eta oso sarritan, egitura sozial zuzengabe batzuk. Miloika pertsonak ez dute Lanik. Beste miloi asko zapalduak daude gaizki ordaindutako lanekin, gizarteko bazterretan bildu-baztertuak eta ahalbide gutxieneko batzuekin existitzera behartuak. Herri anitzetan, aberatsen eta behartsuen arteko diferentziak, indartsuen eta ahulen artekoak, beldurgarriak dira. Gurea bezalako mundu batean, non, alde batetik, frenurik gabeko kapitalismo batek eta, bestetik, estatuko sozialismo totalitarioek balio etiko eta espiritual asko lur-azpiratu eta ondatu dituzten, lukrorako neurrigabeko afan bat sortzen da eta frenurik gabeko lapurretarako joera, aurrerapenaren ideologia materialista batekin, Estatuari gora doan exigentzia eskatuz, konpromiso pertsonalarik gabe. Ustelkeria, gizarteko benetako minbizia bilakatu da, ez bakarrik garapen bidean doazen herrietan baizik eta baita industrializatuetan ere.

A) Kontestu honetan, gizadiko tradizio erlijioso eta etiko zaharrenek eta garrantzizkoenak agindu bat transmititu digute: **Ez lapurtu!** Zentuz positibo batean esanta: **obra ezazu justiziaz eta bikoiztasunik gabe.** Atera ditzagun, bada, antzin-antzinako lege honen ondorioak. Inongo gizakirik ez du inori lapurtzeko eskubiderik, edozein delarik ere egiteko manera, ezin dezake lagun hurkoaren jabetzaren aurka jo, ezta ere guztien jabetzaren aurka. Ezta ere, inork ezin dezake, legeari buelta eman, bere ondasun berezkoen erabilpen arbitrario bat egin kolektiboaren eta Lurraren premiak aintzat hartu gabe.

B) Muturreko pobrezia dagoen lekuan, berehala datoz babeseza eta desesperazioa eta lapurketak multiplikatzen dira bizi-irautearen arrazoin hutsagatik. Boterea eta aberastasuna kontrolarik gabe pilatzen diren lekuetan, berehala bekaizkeri sentimentuak, erresumin jarrerak, gorroto hilkorra eta baita errebeliorako jarrerak ere sortzen dira. Horiek denak biolentziazko eta kontra- biolentziazko infernu-zirkulu batera bideratzen du. Inor ez dadila engaina: Ezinezkoa da bake mundial bat justizia mundial bat gabe!

C) Horregatik, gazteek ikasi behar dute iadanik, familian eta eskolan, jabetzak, murrizak izanik ere, bere obligazioak dituela. Bere erabilpenak guztien onerarako lagundu behar du. Horrela bakarrik lor daiteke **ordena ekonomiko zuzen** bat.

D) Planetako behartsuenei eragiten dien egoera baten aldaketa erabakiorrak, ekonomia mundialaren egiturak era zuzenago batean konfiguratu daitezkeen eskatzen du, jakinik behartsuen zenbakia mila miloira igotzen dela eta gehienbat emakumeak eta haurrak direla, gainera. Norbanakoen ongiegitea eta isolaturiko laguntza-proiektuak ez dira aski, ezinbestekoak baldin badira ere. Oreak zuzen bat lortzeko Estatu guztien partehartzea behar da eta nazioarteko antolakuntzen agintaritzak.

Zorraren krisia, Bigarren Munduko pobrezia bezala, orain disoluzio prozesuan, eta batez ere, Hirugarren Mundukoa, berbideratuak izan behar dute eta alde guztietatik soluzio asegarri bat jasotzea. Egiazki interesen gatazkak ezinbestekoak izango dira etorkizunean ere. Baina hortik alde batera, herri garatuek bereizi beharko lukete beharrezko kontsumoaren eta frenurik gabeko kontsumismoaren artean, ondasunen erabilpen sozial baten eta elkartasungabeko erabilpen baten artean, baliabideen probetxu justifikatuaren eta justifikatugabeko kontsumoaren artean, merkatu-ekonomia kapitalista hutsaren artean eta merkatu-ekonomia baten izakera soziala eta ekologikoaren artean. Baina baita ere garapen bidean dauden herriek kontzientzia nazionalaren azterketa bat behar dute.

Garbi gera dadila, zapalduak zapaltzen dituzten zapaltzaileak dauden bitartean, pertsonak zapaltzen dituzten erakundean dauden artean eta zuzenbidea itotzen duen botere bat, ez dago beste erremediorik erresistentziako jarrera bat mantentzea baino eta, ahal den neurrian, biolentziarik gabe ekitea.

E) Guztiz gizatiarra izateak, gure tradizio etiko eta erlijioso haundien espirituaren arabera, zera esan nahi du:

* Boterea konkistatzeko kupidarik gabeko burruka batean, indar ekonomiko eta politikoaren baliabidearen ordean, indar hau berbera erabili behar da pertsonen zerbitzurako. Proiektzio honek, sufritzen dutenentzako konpasio-espiritu batez animaturik egon behar du eta eskaera berezi batez, behartsuenganako, gutxitu, zahar, errefuxiatu eta abandonatuentzako.

* Boterearen ikuspegi huts baten eta dominazioko politika basati baten ordezt, elkarren arteko errespetuak, interesen oreka arrazoizkoak eta bitartekaritzara eta elkarren arteko kontsideraziora erekitako borondate batek agindu behar dute.

* Diruaren, prestigioaren eta kontsumoaren afana asegaitzaren ordezt, neurriaren eta moderazioaren zentzua berraurkitu behar da, anbiziosoak bere arima galtzen duelako, bere askatasuna, bere lasaitasuna, bere barne-bakea, eta horrekin hain zuzen, pertsona izatea osatzen duena.

3. Tolerantziaren Kultura baten eta bizitza-estilo zintzo eta egiazale baten aldeko Konpromisoa

Lurralde eta erlijio guztietako gizaki asko saiatzen dira gure garaian bizitza zintzoa eta egiazalea eramaten. Gaurko munduan, hala ere, iruzur eta gezur asko existitzen da, tranpak egiten dira, hipkrita izaten da, ideologiak demagogiaz zipriztinduak daude.

- Badaude politikoak eta negozio-jendeak, gezurraz tresna bezala baliatzen direnak, garaipen politikorako eta arrakasta komertzialerako.
- Badaude komunikabideak, informazio egiazkoa eman ordezt, propaganda ideologia zabaltzen dutenak, informazioaren ordezt desinformatzen dutenak, egiari leialak izan ordezt salmenten igoera zinikoki jazartzen dutenak.
- Badaude zientzialari eta ikerlariak beren zerbitzuak programa ideologiko edo politiko moralki dudagarriak direnei eskeintzen dizkietenak edo subordinatzen dituzte interes ekonomikoak dituzten taldeei, edo balio etiko oinarritzkoak hausten duten ikerketak justifikitzen dituzte.
- Badaude erlijioetako ordeztkariak beste erlijioetako sinesdunak beste erlijioetako sinesdunak deskalifikatzen edo gutxiesten dituztenak eta fanatismo eta intolerantzia hedatzen dituztenak errespetua, ulermena eta tolerantziaren ordezt.

A) Kontestu honetan, Gizadiko tradizio erlijioso eta etiko antzinakoenek eta garrantzizkoenek agindu bat transmititu digute: **Ez duzu gezurrik esango!** Zentzu

Positibo batean esanta: **Egiatik hitzegin eta ekin!** Atera ditzagun, bada, antzin-antzinako lege honetatik: inongo gizakirik, inolako erakunderik, inongo Estaturik eta inongo Eliza edo komunitate erlijiosorik ez dauka eskubiderik besteei gezurra esateko.

B) Hau bereziki baliagarria da:

* **komunikabideentzako**, zeinei arrazoi guztiaz egiaren ikerketarako, informazio-askatasuna bermatzen zaien, eta beraz, beraiei dagokie gizarte orotan zaintzaileen funtzioa betetzea. Honek ez du esanahi moralaren gainetik daudenik, baizik eta behartuak daudela objektibotasunarekin eta gardentasunarekin, pertsonaren duintasuna, giza-eskubideak eta oinarrizko balioak defendatzera. Ez daukate inolaz ere eskubiderik norbanakoaren esfera pribatua hausteko, ezta errealitatea desitxuratzeko ere, ezta iritzi publikoa manipulatzeko ere.

* **Artearentzako, literatura eta zientziarentzako**, zeintzuk arrazoi guztiaz askatasun artistikoa eta akademikoa bermatua daukaten. Baina horietako ezer ez dago arau etiko unibertsalekiko loturik gabe, eta egiari zerbitzatu behar diote.

* **Politikoentzat eta bere alderdientzat**. Politikoek beren herriari nabarmenki agerian gezur esaten diotenean, egiaren manipulazioaren errudun direnean, ustelkeriaren edo botere gehiegikeriaren neurrigabeko politika baterena bai barnera begira zein kanpora begira, bere sinesgarritasuna galtzen dute eta ez dute besterik merezi beren karguak eta hautesleak galtzea baino.

* Eta, azkenik, **erlijioetako ordezkarietarako**. Hauek, aurreiritziak, gorrotoa eta aurkakotasuna biziarazten dituztenean, beste kredoa aitortzen dutenen aurrean, fanatismoa predikatzen dutenean edo erlijio-gerrak hasi eta zilegiztatzen dituztenean, ez dute guztien kondena eta aldekoen abandonoa baino beste gauzarik merezi. Inor ez dadila engaina: Ezinezkoa da justizia mundial bat egitasunarik eta gizatasunarik gabe!

C) Horregatik, gazteek ikasi egin behar dute, bai familian eta eskolan, **egitasuna** praktikatzera bere pentsakeran, bere hitzegitean, bere praktikan. Gizaki orok du eskubidea informazio eta beharrezko irakaspen guztira bere bizitzako erabaki oinarrizkoak hartu ahal izateko.

Argi dago, ikusirik egunero gainezkutzen diguten informazio bolumena, gizakiak ia ezin duela garrantzizkoena dena axalekoa denetik bereizi, ez badauka oinarriko etikaren orientabide bat. Gertakizunak nahasten direnean, interesak izkutatzen, nahikeriekin espekulatzen eta iritziak absolutizatzen direnean, arau etikoek laguntza haundi bat osatzen dute argibideketarako.

D) Egiazki gizatiarra izatea, gure tradizio erlijioso eta etiko haundien espirituarekin adostasunean esnahi du:

* **Egia balio izatea eginaraztea**, askatasuna kapritxoarekin eta pluralismoa arbitrarietatearekin nahastu ordez.

* **Egiatasun espirituala sustatzea**, eguneroko pertsonen arteko harremanetan, egiezean, simulazioan eta egokitze oportunistan bizi ordez.

* **Etengabe egia bilatzea**, egizaletasun borondate ustelgaitza batengatik animaturik, erdi-egi ideologikoak eta alderdikoiak banatu ordez.

* **Egia zerbitzatu**, behin ezaguturik, konfiantzarekin eta sendotasunarekin oportunistoari amore ematearen ordez.

4. Berdintasunaren kultura baten eta gizona eta emakumearen

Lagunkortasun baten aldeko konpromisoa

Lurralde eta erlijio guztietako gizaki asko saiatzen dira gizonen eta emakumeen arteko laguntasun espiritu batean bizitzen jokabide arduratsu baten perspektiban, maitasunaren, sexuaren eta familiaren eremuan. Hala ere, mundu guztian patriarkatuko forma kondenagarriak irauntzen dute, sexu bateko nagusigoa beste sexuarekiko, emakumearen zapalkuntza, hurrei sexu gehiegikeriak eta ezarritako prostituzioa. Gure Lurrean mantentzen diren diferentzia sozialek sarritan emakume asko, eta baita haurrak ere, bereziki gutxi garatutako lurraldeetan prostituzioa praktikatzera behartuak izatera daramatzate, biziraupenerako bitarteko bezala.

A) Kontestu honetan, Gizadiko tradizio erlijiosoek eta etiko antzinakoenek eta garrantzizkoenek agindu bat transmititu digute; **Ez zara prostituituko eta ez duzu**

beste inor prostituituko! Zentzu positiboan esanik: Errespetatu zaitzete eta elkarren artean, batzuk besteekiko maitatu! Atera ditzagun, bada, antzin-anitzinako lege honen ondorioak: Inork ez dauka eskubiderik bestea degradatzeko, bere sexualitateko objektu-huts bat bihurtu arteino, ezta menperatzeko edo behartutako sexu-dependentsia batean mantentzeko ere.

B) Sexu zapalketa eta sexuen diskriminazioa kondenatzen ditugu giza-degradazioaren forma duingabeeneko bat bezala. Sexu baten nagusigoa bestearekiko aldarrikatzen den edonon – bereziki ustesendo erlijioso baten arabera egiten bada- eta zapalketa sexuala toleratzen bada, prostituzioa eta hurrei gehiegikeriak sustatzen diren edonon, erresistentziako jarrera bat sortu behar da. Inor ez dadila engaina: **Ezinezkoa da egiazko gizadi bat lagunkortasuneko elkarbizitza bat gabe!**

C) Horregatik gazteek iadanik ikasi behar dute, familian eta eskolan, sexualitatea ez dela berez indar negatibo bat ondatzailea edo zapaltzailea, sortzailea eta moldatzailea baizik. Komunitate bat sortzeko funtzioa dauka bizitzari bai esaten diona eta bakarrik egokiro garatu ahalko dena lagunaren (gizonezkoa edo emakumezkoa) zorientasuna ardurarekin ere kontenplatu duenean.

D) Gizon-emakumea harremanak ez du babespen edo zapalketako kanonengatik zuzendua izan behar, maitasunagatik, laguntasuna eta fidantzarengatik baizik. Giza-osotasuna ez da atsegin sexualarekin identifikatzen. Sexualitatea, laguntasunean bizitutako maitasuneko harreman baten adierazpena eta egiaztapena izan behar du.

Bestaldetik, tradizio erlijioso batzuk, sexualitatearen garapenari borondatezko ukapenaren ideala ezagutzen dute. Borondatezko ukapen hau ere nortasunaren eta osotasunaren adierazpena izan daiteke.

E) Ezkontza, erakunde sozial bezala, diferentzia kultural eta erlijioso guztietatik haratago, maitasunagatik, leialtasunagatik eta egonkortasunagatik ezagutarazten da. Bere funtzioa gizonei, emakumei eta hurrei segurtasuna eta elkar laguntza bermatzea da eta izan behar da, beren eskubideen segurtasunarena bezala. Herri eta kultura guztietan saiatu behar da harreman ekonomiko eta sozial batzuk ezartzen, ezkonduak eta

familiek, batez ere pertsona adinekoek, bizimodu duin bat eraman dezaten. Haurrek heziketarako eskubidea daukate. Gurasoek ez dituzte haurrak zapaldu behar ezta haurrek gurasoak ere; beren harremana elkarren arteko errespetuaz, onarpenez eta arretaz osaturik egon behar du.

F) Egiazki gizatiarra izateak gure tradizio etiko eta erlijioso haundien espirituarekin adostasunean esanahi du:

* Nagusigo patriarkalaren edo degradazioaren ordez, biolentziaren agerraldiak direnez eta maiz erantzun bezala biolentzia probokatzen dutenak, elkarren arteko errespetuak, ulermenak eta **lagunkortasunak** agindu behar du .

* Jabetasun afanaren edo edonolako sexu-gehiegikeri tiporen ordez, elkarren arteko kontsiderazioa behar da, tolerantzia, adiskidetasunerako erekitasuna, **maitasuna**.

Nazioen eta erlijioen mailan praktikan bakarrik jar daiteke, harreman pertsonalen eta familiarren planoan iadanik bizitzen dena .

IV. MENTALITATE ALDAKETA

Esperientzia historiko guztiek zera frogatzen dute: gure munduak ezin duela aldatu ez badago norbanakoan eta iritzi publikoan aurretiko mentalitate aldaketaren bat. Errealitate hau iadanik agerian jarri da gerra eta bakea bezalako gaietan, ekonomia eta ekologian, zeinetan azken hamarkadetan oinarrizko aldaketak eman diren. **Etikaren harremanean antzeko aldaketa bat proposatzen da!** Edozein norbanakoak ez dauzka duintasun bortxaezinezkoa eta eskubide besteraezinak bakarrik; baita ere bereganatu behar du arduratasun transferituezin bat, egiten duen edo omititzen duen guztiarekiko. Gure erabaki eta aktuazio guztiek, gure akatsek eta porrotek bezala, beren berezko ondorioak dituzte.

Ardura hau bizirik mantentzea, bertan sakontzea eta ondorengo belaunaldiei transmititzea erlijioen zeregin espezifikoa da. Errealistak izatea pretenditzen dugu eta argitasunez aktuatu adostasunaren eremuan iritsitako lorpenei dagokienez. Horregatik ondorengo hau kontuan hartzea eskatzen dugu:

1. Ez da erraza adostasun unibertsal bat lortzea, gaur **eztabaidan dauden kuestio etiko konkretu anitzetan** (bioetika eta etika sexualetik, komunikabideen eta zientziaren etikatik igaroz, ekonomiaren eta Estatuaren etikaraino) . Hala ere, hemen azaldutako printzipio komunen espiritutik abiatuz, aurki daitezke soluzio objektiboak orain eztabaidan dauden kuestio anitzei.

2. Bizitzako arlo askotan ardura etikoaren kontzientzia berri baten esnatzea antzematen da. Zoriontzen gara, sendagile, zientzialari, negozio-jendea, kazetariak eta politikoak bezalako lanbide asko etikazko kode modernoekin ornitzen ari direlako, orientabide konkretuetan oinarriturik, eta beren lanbideetako kuestio biziak harremanetan.

3. Komunitate erlijioso ezberdinak animatu nahi ditugu beren etika espezifikoagoa formula dezaten: bere fede-tradiziotik abiaturik, bakoitzak esateko duen hura formulatzeko, adibidez, bizitzaren eta heriotzaren zentzuaz, minaren arazoari aurre

egiteko erari buruz, erruen barkamenari, intereserik gabe emateari eta ukapenaren beharrari, konpasioa eta poztasunari buruz. Horrekin, iadanik ohargarria egiten ari den **ethos mundiala** sakondu, azaldu eta konkretatu egingen da.

Amaitzeko, Planeta honetako bíztanle guztie dei egiten diegu: Gure Lurrak ezin du hobera aldatu lehenagoztik norbanakoaren mentalitatea aldatzen ez bada. Kontzientzia indibidual eta kolektiboaren aldaketa baten alde egiten dugu, gure indar espiritualen esnatze baten alde, gogoeta, meditazioa, otoitza eta pentsamentu positiboaren bidez, **bihotzaren biozberitzearen alde**. Elkarrekin mendiak mugi ditzakegu! Arriskurik eta sakrifiziorik gabe, gure gaurko egoeran oinarritzko aldaketa bat ezinezkoa izango da. Horregatik, gu guztien etika mundial baten konprometitzen gara, ulermen hobeko baten alde eta bizikera sozialki adiskidezale batzuen alde, bakearen sustatzaileak eta Izadiaren maitaleak.

Gizaki guztiak, erlijiosoak izan ala ez, gauza berbera egitera konbidatzen ditugu!